





Berrigara



Udazken-neguko Domekan desfilea Jam-en moda



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

Eskerrik asko



BEDELKAR-eko
harakinon izenean:

Urcelay

Jose Luis Leturia

Jabier Lazpiur

L.M. Rezola

J.M. Zurutuza

Josu Leturia

Jon Leturia

Sebastian Imaz

Igarza

MINER
ardak

Larrañaga
BANATZAILEA

QUESERIA
EL PASTOR VASCO

BANAKETAK
wurtzi

Bergarako Udala

Artzamendi
eraikuntzak

Zabaleta

Lacor

Artatse elkartea

Urbietza iturgintza

XAMATZ

dantza taldea

ARITZETA





Lequio kondeari adeitasunez

Markos Balentziaga / Irakaslea

Aless, kolegi: Idazten dihardostadan herri hau, Bergara, jauregiz, oiñetxez eta kondetxez beterik jak, hain beterik ze, "villa señorial" esaten jotsek.

Iñoizko denboretan jauntxo-jende drogosuaren hasarriak zirala eta, —Gabiria eta Ozaeta zittuan alde banatako liskarzalien buru— apenas zeuan bake onik inguruotan, beste euskal herri askotan antzera. Baña, tira, horrek danok orain, halabiharrian be, ahaztuta jauzkagu eta gaur egungo bergararrok bestelako konde-kontuak jittuagu mamiñago.

Beittik: hemengo jende sail luze samarra hire itxura gaztemon horrekiñ karapaixo-karapaixo jak. Burutik oñetara begiratu eta kokote ostian duan ille mototxa dala..., gerri inguru —ustez— malgu eta gomazko hori dala..., gerri-pian daroian ar-matrikula gordegaizto hori dala..., eure tele-planta zapanarrudun horri begira pikumelaututa dauzkak baztarrak.

Ai, baña danen artian zenbat amets eta esames, Aless! Gañera, hi inportazi-

ñoiko jenerua be bahaiz, eta hori primeran saltzen dok. Makaleko mutilla eu machote nacionalaren onduan!

Baña inguru honetan badok beste-lako ardurarik be, eta ez dittuk ardura aingeru-aingeruak. Hara: lana, lan zibilla esaten dana, hik noiz kon(o)txo egiten ote duan galdetzen jok jendiak. Egunez —jiñuek— batera eta bestera ez haiz geldirik egoten; eta gabaz, us-

"Eta iñok dudarik egin ez dagian beti izaten dok bideo-edo argazki-kamara begiluzeren bat pare-parian harrapauko hauana jolas-edo ibilkideren bat ingurutxo estuenian daukaala, Azkoitiko Azkarateko neska-mutillak letxe, txikili-txakalarako gertu"

tez lo egiten dualakuan eta, bai zera!, etzanda bai, baña... egunez baño be hanka-ariñago ibiltzen haiz. Eta iñok dudarik egin ez dagian beti izaten dok bideo-edo argazki-kamara begiluzeren bat pare-parian harrapauko hauana jolas-edo ibilkideren bat ingurutxo estuenian daukaala, Azkoitiko Azkarateko neska-mutillak letxe, txikili-txakalarako gertu.

Hire ibillera martxosuan berri izan eta, hala eta guztiz be, ustel ganora bako bat besterik ez haizela diñuenak ez dittuk falta. Beinke, egoskor txatxuak alde guztietan, Aless!

Nik, kolegi, hi langille fiñ-fiña haizela uste juat, hain fiña ze, arnasestuak be hartuko dittuk lana gau eta egun egiñez, baña hire lan eta biharrok eskuetakua barik, beste parajeren bateko narruazala sendotzeko aproposaguak diralakuan najak.

Pikaro halakuorrek: Kondeegi haizelako / soruan biharrera-ko / erretengintzan ez baña / egiñian dok gurago.

Besarkada bat.<

barruan



Gema Artola

ASFAMOGI elkartekoa

"Guraso bakarreko familietan oso da argia pobrezia-aren feminizazioa"

8.



Asier Garitano

Burgos taldeko futbolaria

"Konpetentzia izugarria dago 2.Ban. Igoerako play-offa loteria da askotan"

23.



Jose Angel Roige

Udaltzaina

"Multa haundixena? 15.000 PTAkoa, garaje baten aurrian aparkatziagatik"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1755. Urriaren 11n Fausto Fermin Elhuyar jaio zen Logroñon. Parisen kimika eta mineralogia ikasi eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen dirulaguntzari esker, Alemania, Austria eta Hungarian jardun zuen ikasketak sakontzen. 1981ean Bergarako mintegira itzuli zen mineralogia, fisika eta kimika irakastera eta bertan, bere anaia Juan Joserekin batera, wolframioa aurkitu zuen. 1833an hil zen Madrilan.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1605. Urriaren 12an, eklipse baten bidez, bat batean Bilboko zerua ilundu zen eta bertako jende guztia izuak jo zuen.

1676. Urriaren 14an Castro Urdiales berriro Bizkaia hartu zuen.

1933. Urriaren 14an Gabriel Aresti idazlea jaio zen.

MUNDUAN GERTATUA

1962. Urriaren 11n, satellite bidezko lehen telebista emanaldia egin zen.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 8

14-26-30-36-42-49 (osag.1/itz.1)

Astelehena 11

1-7-15-21-34-46 (osag 6/itz.4)

Martitzena 12

5-16-19-33-38-45 (osag.7/itz.1)

Eguaztena 13

7-8-23-35-39-43 (osag.36/itz.3)

PRIMITIVA

Zapatua 9

1-7-19-22-28-41 (osag.29/itz.7)

Domeka 10 Saritzarra

1-6-12-27-40-48 (osag.3/itz.1)

ONCE


Eguakitza 8: 16.070 (070 seriea)

Astelehena 11: 13.393

Eguaztena 13: 49.614

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Hodeiak eta urdinguneak tar-tekak dira asteburuan. Zap-
patua hodeitsuagoa izango da
eta euria egin dezake. Dome-
ka ostarte zabalak irekiko di-
ra eta eguzkitsuagoa izango
da. Temperaturak gora egingo
du; haizeak hegotik joko du.

Ilargiaren aldiak



Ilberri: urriak 9



Ilgora: urriak 17



Ilbete: urriak 24



Ilbehera: urriak 31

Eguzkia

Domeka, urriak 17



Sortu: 08:30



Gorde: 19:34

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 7	15	5	0,3
Eguakitza 8	18	12	-
Zapatua 9	22	6	-
Domeka 10	27	6	-
Astelehena 11	21	8	-
Martitzena 12	17	14	3,8
Eguaztena 13	19	13	1,8

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Atzeiñ

Itzali,
emendau,
amatau.

- Etxetik urten
aurretik sua
atzeiñ.



JUSTU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Bihotzerako

"Card-iac Pen" izeneko aparatua asmatu dute (hortzore tubo baten neurria du eta 80 gramuko pisua) bihotzeko arazoak ekiditen laguntzeko asmoz: bihotzaren gora-behera denak gaixoak aldean daraman cd txiki batean erregistratzen ditu eta emaitzak ordenadore batera pasatzen, gaixotasunari aurre egiteko neurri egokiak hartu ahal izateko.

Farmaziak

Eguakitza 15:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Zapatua 16:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 83

Domeka 17:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 83

Astelehena 18:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Martitzena 19:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Eguaztena 20:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguena 21:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

Ogia

Domeka 17: Mizpildi.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak

DYA 943 78 71 51

Gurutze Gorria 943 76 56 78

Larrialdiak 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 08

Ertzaintza 943 76 53 40

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Osasun Etxea 943 76 24 40

Arrasateko ospitala 943 03 53 00

Asepeyo 943 76 16 40

Pakea 943 76 13 40

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 22

GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 31

PESA 902 10 12 70

Taxiak 943 76 19 50

RENFE 943 28 35 50

UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 00

Igerilekuak 943 76 20 50

Kultur Etxea 943 77 91 50

Liburutegia 943 77 91 00

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 00

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 00

Erregistroa 943 76 13 00

Jardun 943 76 38 00

Jubilatuen Etxea 943 76 21 40

Postetxea 943 76 28 00

zorion agurrak



Mari Karmen Barrenetxea
Urriaren 18an
42 urte. Urte askotarako!
Juan.



Eskerne Ezpeleta
Urriaren 18an
65 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Eider.



Ibon Perez
Urriaren 16an
14 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Kepa Sansiñena
Urriaren 18an
3 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aitzol Gandiaga
Urriaren 15ean
7 urte. Urte askotarako!
Aita, ama eta Endika.



Maitane Arteaga
Urriaren 19an
6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Alex.



Iñigo Ena
Urriaren 17an
5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maitane Larrañaga
Urriaren 17an
2 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Tolo
Urriaren 17an
urtebetetzea.
Urte askotarako!



Itsaso Aranzabal
Urriaren 18an
9 urte. Urte askotarako!
Familiakoak eta lagunak.



Gorka Maiztegi
Urriaren 19an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Idoia Aiastui
Urriaren 21ean
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

hildakoak

BERGARA

Luis Martinez Estevez

Urriak 10, 72 urte

Esteban Quintana Angulo

Urriak 11, 89 urte

jaiotakoak

BERGARA

Manez Moreno Vera

Irailak 29

Yerlin Ureña Gil

Irailak 30

Ainhoa Ugarte Gabilondo

Urriak 1

Unai Arrieta Grande

Urriak 5

Sergio Miguel Sainz

Urriak 6

mezak

Santa Marina

Domekak:
11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Eloso

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30etan.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30etan.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 10:30.

Eguakitza: 19:00.

Monja Zaharrek

Domekak: 19:30.

Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta lanegunak: 11:45.

Mariaren

Lagundia

Domekak: 10:00.

Zapatuak eta lanegunak: 09:00.

Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta lanegunak: 19:30.

Uzarraga

Domeka: 10:00.

URTEURRENA

Maria Carmen Lizaur Larrañaga




Lehen urteurrenako meza domekan, urriak 17, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Joxepa Arrue Jaka

Lehen urteurrenako meza domekan, urriak 17, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ellen Kenny Flynn "Mother"



Lehen urteurrenako meza domekan, urriak 17, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Juan Murgiondo Etxabe

Elorregi auzoan hil zen 1999ko irailaren 25ean, 88 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko sendikoen izenean.

Datorren asteko alean, URRIAREN 22a eta 28a bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu.

ANTZERKIA

► **"El caserio"** zarzuela domekan, hilak 17, 19:30etan Arrasateko Amaia antzokian. Sarrerak (2.000 pezeta aurrez, 2.500 takilan) Barrenkaleko Onena tindategian salgai.

MUSIKA

► **Anti nowhere league eta Serie Z** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.

ERAKUSKETAK

► **Josean Santorcuatoren** plumilla erakusketa Nahikarin.

► **Ramon Aranzabalen margoak** Arrasateko Harresi aretoan (Iturriotz, 35) urriaren 24ra arte.

► **Manu Muniategiandikoetxearen** margoak Tolosako Aranburu jauregian, urriaren 23ra arte.

LEHIAKETAK

► **Argazki rallya Bergaran** urriaren 24an. Edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du, egunean bertan 8:30etatik 9:30etara Pol-Pol Argazki Taldeak Zabalotegiko 5. zenbakian duen lokalean izena emanaz. Gaiak eta ibilbidea orduan ezagutaraziko dira. Proiektzioa eta sari banaketa azaroaren 19an egingo da.

KONTZERTUA

Incansables txaranga

Non: Fraiskozurin.

Noiz: domekan, urriak 17, 12:30etan.

Udazken kulturalako programazioaren barruan, Incansables txaranga bisitari izango dugu bihar zapatua. Gure artean aski ezagunak ditugu, azken urteotan fijoak izan baitira Pazkuetako egitarauan.

Oraingo honetan, urtean zehar Euskal Herriko txoko askotan aurkeztu izan duen ikuskizun berria eskainiko du Hernaniko taldeak. Bertan musika estilo ezberdinak biltzen dira, martxak, amerikar swing estiloa, pasodobleak, mexikanak edota mambo musika, besteak beste. Joaquin Ortega taldeko saxofonistaren hitzetan, "Leitzan estilo guztietako musika taldeei zuzendutako aste kulturala antolatzen dute eta bertan parte hartzeko ikuskizun hau prestatzeari ekin genion. Oso eskaintza zabala denez, adin guztietako publikoarengana zuzentzeko asmoa daukagu. Orain arte, egondako herrietan, oso erantzun ona jaso dugu entzulegoaren partetik".

Ikuskizunak hiru zati ditu: lehenbizi, taldea ezagutzera eman duten jai giroko piezak joko dituzte kalejiran 11:15etan eta, ondoren, kontzertua izango da Fraiskozurin. Kontzertuak ordubete inguruko iraupena izango du eta honako hauek izango dira joko dituzten piezetako batzuk: "Or konpon" martxa (Miguel Gonzalez Bastida), "La dominguera" izenburuko jota (Turrillas), "Recuerdos del sur" pasodoblea (L. Manso), Gershwinen "An american in Paris" eta "I go rhythm" piezak, "La negra" vals mexikarra (Fuentes eta Vargas konpositoreena) edota Joaquin Ortegak berak konposatutako "Leitzako herriari" izenburuko martxa. Kontzertua amaitutakoan, Incansableseko kideek beste kalejira bat egingo dute.



Kontzertu aurretik eta ondoren kalejiran ibiltzeko aukera izango da.

► **Komiki ez sexisten lehiaketa**, Donostiako Udaleko Emakumearen bulegoak antolatuta. Lanak azaroaren 26ra jasoko dira Emakumearen bulegoan (Urdaneta 13, 3.a. 20006 Donostia).

► **Euskal esakera barrien**

lehiaketa. Esakerak aurkezteko epea azaroaren amaieran bukatuko da. Gabonetan 5.000 pezetako 40 sari banatuko dira. Argibideak, Bermeoko udal eskuratu zerbitzuan, 94 617 91 32.

► **Gerriko Ikerlan Sariketa.** Ikerlanaren gaia Goierri dago-

kion edozein zientzi alorrekoa izan daiteke eta lanak (euskaraz) jasotzeko epea 2000. urteko martxoaren 17an bukatuko da. Irabazleak 500.000 pezeta eta bigarrenak 300.000 pezeta eskuratuko dituzte. Argibide gehiago nahi izanez gero, deitu 943 16 02 82 telefonora.

Deco-Textil ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...



Ibargarai 2
943 6 51 65

IKASTAROAK

► **Pintura ikastaroa** (hasiera eta hobekuntza mailak) Bearteko lokalean. Irakaslea Rikardo Azkargorta izango da. Argibideak: 656 72 44 49.

► **Pintura ikastaroa**, 6-12 urte bitartekoei zuzenduta, zapatu goizetan 10:00etatik 13:00etara Bearteko lokalean, Bolun. Irakaslea: Usoa Mendikute. Izen-ematea 943 76 44 17 edo 696 57 79 45 zerbakietan.

► **Yoga ikastaroa** Gloria Enaren eskutik. Izen-ematea eta argibideak 943 76 11 38 zerbakietan.

DEIAK

► **Jubilatuena kultur hamabostaldia**: bihar, zapatua, Antzuolako Antigua auzoko errotara eta ermitara bisita. Mezaren ostean, luntxa izango da. Bergararik autobusa 17:00etan aterako da. Astelehenean, hilak 18, gidatutako kultur bisita Elorrioren (autobusa 15:30etan Antzuolatik eta 15:45etan Bergararik). Martitzenean, hilak 19, Gonzalo Berzosa gerontologoak "Gazte eta nagusien arteko elkarriketarekin ere pakea eraiki daiteke" izenburuko hiltzaldia emango du, 19:30etan Miguel Altuna institutuan. Eguaztenean, hilak 20, Deba Garaiko jubilatuen mendia ibilaldia izango da

10:00etan. Argibide gehiago 943 76 21 40 zerbakietan.

► **Raul Luqueren aldeko moda desfilea** domekan, hilak 17, 18:00etan Jam aretoan. Sarrerak Deportivo, Ariznoa eta Ganbara tabernetan salgai.

► **Hitzaldia**: "Guraso bakaerreko familien problematika". Hitzlaria: Gema Artola, ASFAMOGIko presidentea. Eguaztenean, hilak 20, 19:00etan Kultur Etxean.

JAIK

► **Nafarroa Oinez** domekan, hilak 17, Iruñean.

KINTADAK

► **1933an jaiotakoena anaiarteko eguna** domekan, urriaren 17an. Goizean hildakoen oroimenezko meza izango da eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin edo Intxortan.

► **1966an jaiotakoena afaria** azaroaren 6an Antxonin, 21:00etan. Izen-ematea bertan.

► **1940an jaiotakoena afaria** Antxonin jatean. Izen-ematea eta argibideak 943 76 45 75 (Begoña) eta 943 76 34 36 (Mari Tere) telefonoetan.

► **1959an jaiotakoena afaria** azaroaren 20an Antxonin jatean. Izen-ematea bertan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Cruelles intenciones

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Inspector Gadget

Zapatu eta domeka: 17:00.

Toulouse Lautrec

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

American Pie

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:00.

EIBAR. Unzaga

Un padre genial

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Cruelles intenciones

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana

Locos en Alabama

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Finales de agosto, principios de septiembre

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola

Cuarteto de La Habana

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

The water boy

Domeka: 17:00.

Keep cool

Eguena, zine-kluba: 20:15.

CRUELES INTENCIONES

Zuzendaria: Roger Kumble.

Aktoreak: Sarah Michelle Gellar, Ryan Phillippe, Reese Witherspoon. // ≥ 13 urte.

Roger Kumble zuzendariak amerikar gazte batzuren amodio kontuei buruzko filmea errodatu du. *Kathryn* utzi eta *Court* gaztea *Cecilerekin* irtezen hasi da. Baina *Kathryn* mendekua hartu nahi izango du berehala, *Sebastian* bere anaiordeari *Cecile* konkistatzen ahalegintzeko eskatuz.

INSPECTOR GADGET

Zuzendaria: David Kellogg.

Aktoreak: Matthew Broderick, Rupert Everett, Joely Fisher. // Adin guztiak.

Marrakzi bizidunen telesailari esker *Gadget* inspektorea oso ezaguna izan genuen gure artean duela urte batzuk. Orain pantaila handira salto egin du. Ikusleek primeran pasako dute inspektorearen abentura dibertigarriekin eta bere trukoekin...

TOULOUSE LAUTREC

Zuzendaria: Roger Planchon.

Aktoreak: Régis Royer, Elsa Zylberstein, Claude Rich. // ≥ 18 urte.

Henri de Toulouse Lautrec Frantziak eman duen pintorerik ezagunenetakoa dugu eta Roger Planchon zuzendariak bere bizitzan oinarritutako filmea egin du. Belle epoque garaiko Paris hirian giroa, pintorearen eta Suzanne Valadon-en arteko amodio istorioa kontatzen zaigu.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegarietan.
Tf. 943 76 27 93



KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoena espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

Eustateko datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan, zazpi familietatik bat osatzeke dago, ezkontideetako bat hil edo banatu egin delako. Bakarrak egon eta familia-ardurak dituztenei zuzendutako ASFAMOGI elkarteak sortu zen duela lau urte. Gema Artola presidentea hizlari izango dugu eguaztenean, 19:00etan Kultur Etxean.

G. Zeintzuk dira guraso bakarreko familien arazo nagusiak?

E. Guraso bakarreko familien ardura dutenen artean gehien goa emakumeak dira, alde batetik emakumezko alargunak gizonezko alargunak baino gehiago direlako, bestetik banatze kasuetan normalean seme-alabak emakumeen ardurapean geratzen direlako eta, azkenik, ama ezkongabeen kasuengatik. Gure elkartearen ere hori islatzen da, bazkideen %96 emakumeak baitira. Arazo nagusiak sikologikoak eta ekonomikoak izaten dira eta afektibitate eza ere hor dago. Emakume askok ez dute errekurtso propiorik lanik ez dutelako eta kasu askotan, formazio maila baxua dutenez, oso zaila egiten zaie lan merkatuan sartzea. Arazo sikologikoei dagokienez, oso gogorra egiten da egoera berrira egokitzea eta galera horrek autoestimarengan ere eragina izaten du. Bestalde, banatzearen ondorioz, klima konfliktiboa sortzen da, ondasunen banaketa, seme-alaben custodia, pentsioa eta horrelakoengatik.

G. Gizonezkoek eta emakumezkoek modu desberdinean bizi dute egoera berria?

E. Emakumezkoek karga gehiago izaten dituzte, seme-alabak gehienetan be-

GEMA ARTOLA
ASFAMOGI elkartearen presidentea

“Guraso bakarreko familietan oso da argia pobreziaren feminizazioa”



Artolak guraso bakarreko familien problematika aztertuko du eguaztenean.

raien kargu geratzen direlako. Hori dela eta, gizonezkoak baino zailtasun gehiago dituzte bikote berria topatu eta egoera berriari aurre egiteko orduan. Badira banatzea liberazio bat bezala bizi duten gizonezkoak. Dena den, egia da euren aitatasuna arduratsu bizi dutenek asko sufritzen dutela, zenbaitetan emakumeak

“Europako iparraldean guraso bakarreko familiak gehiago babesten dituzte; guk ere laguntzak aldarrikatu nahi ditugu”

baino okerrago pasatzen dutelarik.

G. Elkarteak zer nolako laguntza eskaintzen die bazkideei?

E. Gehienbat lan arloan (langabetuentzako irtenbideak topatuz), arlo sikologian eta banatzeak sortzen dituen arazo juridikoen gainean (epaitegira joan aurretik banatzea negoziatuz, prozesua hain traumatikoa ez izateko) lan egiten dugu. Lehen esan bezala, emakume asko langabezian dira eta, enpresa txikiak sortzeko aukera izan dezaten, proiektu bat jarri dugu martxan INEMen laguntzarekin. Era berean, Diputazioak formazioerako laguntza batzuk emateko zain gaudu. Jendea hezi ondoren, helburua emakumeek beraien enpresa txikiak sortzea litzateke eta, behin martxan jarritakoan, aholkularitza eskaintzen jarraituko genuke. Horretarako diskriminazio positiboa delako ezinbestekoa da, karga familiarak dituzten emakumeen erreztasunak ematea.

G. Beste herrialdeekin konparatuz, zelakoa da hermenego egoera gai honetan?

E. Europako iparraldeko herrialdeetan edo Frantzia guraso bakarreko familiak gehiago babesten dituzte. Kontuan izan behar dugu familia hauen kopuruak gora egingo duela etorkizunean eta horregatik, arazo hau sufritzen dutenentzat laguntzak aldarrikatu nahi ditugu. Gizarte konpetitiboa honetan seme-alabekin arazo asko izaten dira, jantziak edo aisialdia dela gastuak handiak direlako. Interserziarako ingreso minimoa kobratzen ari diren emakumeek giza eskusiorako arriskua daukate, pobreziaren feminizazioa oso argia baita guraso bakarreko familietan.<

Hizkuntza musikala

Helduentzako ikastaroa



HIZKUNTZA MUSIKALA

Edozein instrumentu joten ikasteko beharrezkoa

36 orduko ikastaroa, hiru alditan banatua:

1.a, azaroan (13 ordu)

2.a, otsailean (13 ordu)

3.a, maiatzean (10 ordu)

Egunak:

astelehen, martitzen eta eguenak

Ordutegia:

19:30-20:30

Izena emateko epea:

azaroaren 1a

Prezioa:

10.000 PTA ikastaro osoa (36 orduak)



ARGIBIDE GEHIAGO:

Musika Eskola. Tf.: 943 76 57 80. Buelgo ordutegia: 16:30-20:30



Labegarietako zubiaren eta bariantera irteteko bidegurutzetako inguruaren urbanizazioa egitea ere eskatu du Udalak.

Ekialdeko saihebidetza lau karrilekoa izateko eskaria

Garraio eta Errepide diputatuak orain dela pare bat aste aurkeztutako Ekialdeko saihebidetzaaren egitasmoari hiru alegazio aurkeztu dizkio Bergarako Udalak. Joan zen eguakitzeko ez ohiko Osoko Bilkuran onartu ziren alegaziook EAJ, EA eta EHren aldeko botuekin.

Ekialdeko saihebidetza lau karril izatea eskatuko dio Bergarako Udalak Gipuzkoako Diputazioari. Era berean, Deba Garaiko eta Urolako beste udalek bezala, Beasain-Durango errepideari lehentasuna ematea.

Proiektuan lau karrileko errepidea aurreikustea eskatzen du Bergarako Udalak, nahiz eta errepidea epeka egin. Bestalde, Galarztako lotunea (Oruesagasti baserriaren ondoan) lau karrileko errepidearentzako modukoa izatea eskatzen du Udalak eta ez Bergararik Arrasatera doan gaur egungo kaminoarekin lotzekoa.

Hirugarren alegazioan, Teileriko lotunea aipatzen da. Alde batetik, Labegarietako hegoaldeko zubia erabiliko ez denez, inguru guztia urbanizatzea eska-

tzen du Bergarako Udalak. Bestetik, Benta-berrirako eta Rodriguez txatarrategirako sarrerei eta Arrasaterantz doan bidegorriari irtenbideak ematea eskatzen du. Azkenik, Labegarietako Industrialdeko ur kanalizazioarentzat proposatzen den irtenbidea desegokia dela adierazten da eta, Elkorouñoko isurtegarako sarbideak zehaztea eta Goenboluko pagadia, ahal bada, errespetatzea eskatzen da Bergarako Udalak datorren astean Foru Aldundira bidaliko duen txostenean.

Euria eta tenperatura neurtzeko estazioa Belatz kantinan

Gaur, eguakitzaren goizean jartzekoa zuten estazio meteorologiko bat Gorkako Belatz kantinarekin ondoan. Hain zuzen ere, termometro-rako eta publimetro-rako garita txiki bana jarriko dituzte kantinarekin kanpoaldean. Bertan jasotzen diren eurien eta tenperaturaren datuak, Igeldoko meteorologi behatokiara bidaliko ditu hilero Joxean Azkaratek. Belatz kantinakoa.

Joxean Azkaratek beti gustatu izan zaizkio eguraldiari buruzko kontuak eta kantinara gerturatzen diren artean gaia mintzagai izaten dute sarritan. Hori dela eta, Igeldon dagoen meteorologi institutuko arduradunekin harremanetan jarri zen eta haur egokia iruditutako zitzaien euria eta tenperatura neurtzeko aparailuak bertan jartzea. Esan behar da Elosuko gaina Gipuzkoako errepide porturik garaiena dela.

Igeldoko meteorologi behatokiak Gipuzkoan beste 70 puntu dituen eurien eta tenperaturaren datuak jasotzeko. Horietako bat, Bergarako San Juan auzoko Narbaizabolu baserrian.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Autobus geltoki berria eraiki arte Oxirondokoa erabiliko da

Beheko estazioko etxea botatzen dutenean jarriko dute martxan

Ibargarai kalean etxeak egiteko Beheko estazioko autobus geltokia botatzen dutenerako geltoki berria non jarri aztertzen ari da Bergarako Udala.

Geltoki berria Torrekoan, errekarren gainean, eraikiko da, baina datorren udara arte ez da zabalduko. Horregatik, lehengo beheko trenbidearen geltokia botatzen dutenean, urte amaieran edo, behin behineko autobus geltokia egokitu beharko da berria eraiki arte. Orain arte hainbat alternatiba aztertu dute.



Arrasatera zein Eibarrera doazen urbanoentzako geltokia badago gaur egun Oxirondon.

PESA-KO TEKNIKOAK

Hasiera batean, barianteko atsedean guneetan, errepidearen bi alboetan, jartzea aurreikusitako zuten, baina trafikoa dela eta, oso arriskuetsua gerta daiteke itxoion lekuak bertan jartzea eta seguruena Oxirondon ipiniko dute.

Une honetan urbanoentzako geltokitarako erabiltzen da eta etorkizunean autobusentzat ere erabiltzea aztertzen ari dira. Gainera, Oxirondon markesina bana

daude Arrasaterako eta Eibarrerako norabideetan. Datorren astean Pesa autobus enpresako teknikoak Bergarara etorriko dira arazoari irtenbide bat aurkitu nahian.

BEHEKO ESTAZIOKO ETXEA BOTA ONDOREN

Edozein modutan ere, Beheko estazioko etxea bota arte bertan izango da autobus geltokia. Hasiera batean,

irailean botako zutela uste bazen ere, BERRIGARAK jakin duenez, urte amaierara arte, gutxienez, ez da etxea botako. Bestalde, urriaren adjudikatzeak ziren autobus geltoki berria egiteko lanak, baina bertako ur kanalizazioak direla eta, obrak atzeratu egin dira.

Autobus geltoki berriaren proiektua Iñaki Berasategi arkitektoarena da.

Proiektua eta lanak adjudikatze baldintza pleguak uztailen onartu zirtuen Udalbatzak 101.833.236 pezetako aurrekontuarekin. Lanak hasten direnetik, zazpi hilabeteko epean amaitu beharko dira. Geltoki berria Torrekoa parean eraikiko da, errekarren gainean, orain aparkalekua dagoen tokian. Autobus geltokia egiteaz gain, inguru guztia urbanizatuko da.



IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

Berrigara

383 zenbakia.
1999ko urriaren 15a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria:

Eneko Azkarate.

Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Monika Belastegi.

Maketazioa: Iñaki Iturbe.

Publizitatea: Uxue Zabaleta.

Harpidetza: Itziar Kortabarría.

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Mariipi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugalde, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:

Juan Martin Elxepuru, Josu Okina,
Luis Mari Aguirre, Imanol Sorondo.

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: ER/Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GAUZAK ARGITZEKO ASMOZ

Jon Azkarateri:

Joan zen asteko BERRIGARAN (282. alea) "Gutunak" saileak azaldutako kartari erantzunez, eta arazoa argitu asmoz, Raulen aldeko komisioko kideok zera adierazi nahi dugu:

Domekan egingo den moda desfileko kartel iragarleak euskaraz eta gaztelaraz egin genituela eta euskarazkoak izan zuten akats

batengatik, berriz inprimitu behar izan genituela.

Desfilearen eguna gainean genuela ikusiz, akatsik gabeko kartel iragarleak lehenbailehen jartzea erabaki genuen eta euskarazkoak zuzendu bezain azkar jarri genituen.

Raulen aldeko komisioko kideok garbi laga nahi dugu orain arte argitaratu dugun gutzia bi hizkuntzatan egin dugula. Bukatzeko, adierazi nahi dugu ez gau-

dela sentsibilizazioak konparatzearekin ados eta ez dela gure asmoa inongo polemiketan sartzea, baizik eta Raulen alde lan egitea.

Bestalde, lerro hauen bertartez Bergarako herritarrak animatu nahi ditugu igande honetan, hilak 17, arratsaldeko 6etan Jam aretoa egingo den Udazken-neguko moda desfilea ikustera joateko.

Raul Luqueren lagunak

DEBAGUNEK

**-Deba Garaiko Euskara Elkartearen elkargoa-
urtero argitaratzen duen egutegirako
ARGAZKIAK BEHAR DITUGU**

Antzinako lanbideen

(errementaritza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...)

argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu,

BERRIGARA edo JARDUNERA ekartzera eskertuko genizuke.

Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97.

Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

tira biraka: usoa mendikute

PATXI, SEKRETUTXO BAT
KONTATU BEHAR DIZUT

AURRERA BADA!

BA AL DAKIEZ BERGATAR ASKOK,
GU BEZALA, BERRIGARA KOMUNEAN IRAKURTZEN DUELA?

BAI ALA?

ZER IRUDITZEN ZAIEZU
AHOLKU BAT ENANGO BAGENIE

EZ LETOKO
GAIZKI!

LAGUNAK: BEGIRATU AURRETIK IA KOMUNEAN PAPERIK BADAITZEN, ASTEKARI HONETAKO PAPERAK
LATZAK DIRA ETA.

■ atrebentzia ezpada

Raul Luqueren lagunak moda desfilea antolatu dabe domekarako. Holako baten desfileauko ziñuke?




Manuel Mondragon

Ni zaharra naiz holako gauzetarako, moda eskasa daukat nik... Dirulaguntza emongo neuke baina desfileatu ez.



Edurne Aldana

Ni modelo moduan? Txukuna neu! Kolaboratzeko parte hartuko neuke, holakotxe gauzetan kolaboratzea ondo dagoela pentsatzen jat.



Ibai Redondo

Ez dot uste, hainbeste jendeurrean desfileatzeak lotsa emongo lostake. Lagun baten aldekoa bada, konpromezu handixa izango litza-keeta irten biako giñake...



Elena Lete

Uste dot ezetz, lotsa emoten dostalako. Beste jarduera batzuk ein leizke eta orduan ez neuke lagun-zeke arazorik eukiko.



Francisco Perez

Ez dakitt zer esan. Beharbada desfileatuko neuke baina, egixa esan, lotsa handixa emoten dost. Asko pentsatuko neuke.



Amaia Gallastegi

Badare beste batzuk desfileatzeko gorputz hobia daukenak... Jende faltan egon ezkerro ba orduan bai, irtingo nitzake beharbada.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

NOVEDADESEKO PROIEKZIO KASKARRAK

J. Alberdik Novedades zine aretoko proiektioei buruzko kexa bat utzi digu aste honetan erantzungailu automatikoan. Alberdiren arabera, Novedadeseko proiektioetan behin baino gehiagotan desenfoke arazoak izaten dira eta zine arduradunei ikusleak kontutan hartzeko eskatu nahi die. Aurreko osteguneko zine-klubeko emanaldia penagarria gertatu zela eta ikusleek filmearekin ezin izan zutela gozatu esan digu. Filme bat ikustearren 550 pezeta ordaindu eta gero horren baldintza txarretan ikusteko eskubiderik ez dagoela salatu nahi du, horrela ikusleak erakarri baino zinera ez joatea lortuko delako.

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

Eskulan ikastaroa

Noiz:

urriaren 25etik maiatzera arte

Non:

Kartzela Zaharrean

Ordutegia:

15:30etatik 17:00etara

Prezioa:

3.500 PTA Jarduneko

bazkideek;

4.000 gainontzekoek

Matrikula epea:

urriaren 22a.

Informazioa:

Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)

943 76 08 19 / 943 76 36 61



GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a

Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

■ adituen esanetan

Etxeko animalien hortzak

Txakurrek eta katuek ere hortzekin arazoak izaten dituzte. Alde batetik elikagai bigunak (etxean ematen zaizkienak eta latak) eta bestetik gogorak (pentsua nagusiki) hartzen dituzte. Batez ere elikagai bigunen erruz, zikinkerri hondarrak geratzen zaizkie ahoan eta beraz, bakteriak ugalduz joaten dira, sarroa sortuz. Animalien kasuan, hortzak estaltzen dituen geruza gogor bat osatzen joaten da eta horrek hortzaren sustraian infekzioak eragin ditzake. Sintometako bat ahoko usain txarra izaten da. Infekzioa aho osora zabalduz gero, larriagoa izaten da, askotan ahoko infekzioak bihotzeko balbulari ere eragiten diolako. Arazo estetiko hutsa dena konplikatu egiten da eta animalien osasuna arriskuan egon daiteke.

Horrelakorik ez gertatzeko, sarro kantitate nahikoa pilatzen denean, ultrasoinu aparailu baten bitartez, eta anestesiaz lagunduta, animaliar ahoko garbiketa egitea komeni da, sarro geruza eta usteldutako hortzak kentzeko. Oso interbentzio erreza izaten da. Bakteriak ahotik ez zabaltzeko, antibiotikoak ere ematen zaizkio animaliarri. Arazo hau ohizkoa da etxeko animalietan eta gutxienez animaliarri bere bizitzan behin garbiketa egitea gomendatzen da. Garbiketa egitean,



PEPE FERNANDEZ

Albaitaria

"Sarroarekin, hortzak estaltzen dituen geruza gogorra osatzen da eta horrek hortzaren sustraian infekzioak eragin ditzake"

urte askotan arazo hori saihestu dezakegu eta bost urtetik behin-edo errebisatzea komeni da.

Prebentzioari dagokionez, animaliarri pentsuak ematen saiatu behar gara, elikagai gogorrek in zailagoa baita sarroa sortzea. Etxeko elikagaiak ematekotan, hiru bat urtetan sarroa sortzen da. Elikadura zaintzeaz gain, hezur gogorak ematea ere ondo etortzen da, hezurra hortzikatuz txakurrek ahoa garbitzen dutelako. Bestalde, animaliei zuzendutako hortzetako pastak ere badira baina horretarako txikitatik ohitu behar dira animaliak, bestela, helduago direnean, oso zaila izaten da.<



Ahoko infekzioek bihotzeko balbulari eragiten diote zenbaitetan.

■ bergarako gordailutik

BESARKADA ONDOREN ALKATEA BOTA

Imanol Sorondo

Gipuzkoako Diputazioak eta Komandante nagusiak agiri bat bidali zuten Bergarara 1839.eko urriaren lehenengo egunean. Alkateak aldi baterako laga egin behar zuela adieraziz; bidezkoa zela hori bizi zuten egoera berrian eta konponbideak errazteko. Egun horretan bertan Azkonatar Felipe Mariak elkartu ditu Udaletxeko batzarkide denak berria emateko, baina bera ez dagoela lagatzeko asmotan dio, Fuegoen arabera izendatua izan zela, herriaren botokin, eta Fuegoak eta Herriko Ohiturak zainduko zituela zin eginda zegoela. Batzarkideek, eztabaidatu ondoren, Komandantearen eta Diputazioaren erabakiari men egitea hobe izango zela erabaki zuten; egoerari eta pakeari begiratuz, Fuegoak defendatzeko ere hobe berri zela, jakinik erabakia aldi baterako bakarrik zela eta lehengora etorriko zirela. Berriz ere zin egin zuten Fuegoak eta Ohiturak defendatuko zizutela. Dena Gipuzkoako Juntak elkartu arte omen zela, horiek bakarrik omen zeukaten aldatzeko eskubidea.

Orain Udaletxean gaude. Joakin Irizar alkate lanetan ari da urriaren 25ean. Diputazioaren eta Komandantearen izenean Gipuzkoako Aginte Politikoa Nagusiak idatzi duen eskutiz bat irakurtzen ari da: aldaketa dagoela dio idatziak, Ozaeta Berroetatar Manueli zuzenenan emateko alkatetzatza. Irizar jaunak honako puntu hau bozkatzea proposatu du batzarkideen artean:

Agindua hartu bai, baina bete ez ("se obedece pero no se cumple"). Irizarrek baiezkota eman du eta gainerako zinegotziek, berriz, ezezkoa, agindutakoa bete egin behar dela, alegia. Irizarrek hitza hartu eta Azkonaren alde ari da: bere aurka ez dela ezer adierazi, herrian onartua dagoela, erabakia askatasunaren, Foruen eta Ohituren aurkakoa dela, diktadoreen garaietakoa dela, eta abar. Eta, alkatetzatza hartu duen Ozaetaren zina jaso ondoren, dimitiu egin du. Ozaetak penarekin hartu duela adierazi du, horrela denon hartuemanak hobeto joango direlakoan dago, eta Fuegoak eta Ohiturak errespetatuko diren egunaren zain omen dago.<



Turistak Pilarikako zubian

Pilarikako zubia aprobetxatuz, herritar batzuk alde egin eta kanpotar batzuk bisitari izan ditugu. Udaleko **Turismo Bulegoa** zabalik izan da astebukaera luze honetan (173 kontsulta egin dira) eta herria erakusteko bisita gidatuak antolatu dira. Astelehenean **Txiletik etorritako irakasle taldea** izan genuen Bergaran; bi hilabetez Euskal Herrian egongo dira bertako hezkuntza sistema aztertzen eta, bide batez, turismo piskat egiteko aprobetxatuko dute. Argazkian, **Vicky Bascones** Turismo Bulegoko arduradunarekin Plazan, Seminarioari buruzko azalpenak jasotzen. Txiletarrak oso gustora zeuden gure herrian ikusitakoarekin.



Unicefen hitzaldia

Unicef erakundeak antolatutako "Eman iritzia" sentsibilizazio kanpainari amaiera emateko, **Jose Juan Ortizek** Kosovoko egoerari buruzko hitzaldia eman zuen joan zen asteko eguean Udaletxean. Aurretik **Consuelo Crespo** Euskal Herriko Unicef Batzordeko presidentek azken urteotan munduko haurren egoera hobetzeko eman diren aurrerapausuak azaldu zituen, haurren eskubideen hitzarmenaren garrantzia azpimarratuz. Ortiz, berriz, Albaniako Kukeseko errefuxiatuen esparruetan Unicefeko arduraduna izan da eta bertan egindako lana esplikatu zuen.

Saskibaloiko beteranoak

Garai batean **Bergarako saskibaloiko taldean aritutako jokalariek** lagun arteko partidua jokatu zuten duela aste batzuk. Argazkian agertzen direnek orain dela 10 bat urte elkarrekin jokatu zuten eta, orduko giroa berreskuratu nahirik, berriz elkartu zitzaizkigun, oraindik ere sasoi onean direla erakutsiz. Partidu ostean afaria egin zuten, eta izango zuten bai jokalariei garaiko anekdotak gogoratzeko aukera. Argazkian, zutik, **Iker Beistegi, Amadeo Corrius, Angel Iñarra, Juanjo Nogueiras eta Jose Ramon Aiausti.** Makurtuta, **Fernando Asula, Xabier Mujika, Alex Azkarate, Josean Arteaga eta Moises Etxaniz.** Hau bai *dream teama*!!



Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

**Maiatzera arte,
astelehenetik eguenera bitartean,
ez dugu afaririk emango, jaiegunetan izan ezik.
Barkatu eragozpenak.**


Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

HARREMAN Denda Solidarioa

Asia, Afrika eta Hegoamerikako produktuak zure esku.
Artisautza, textila, jakiak, kafea, rona, tea,...


Etorri eta egizu zure EROSKETA SOLIDARIOA!

Deba Garaiko ONGek bultzatua



Leku berrira

aldatu gara
Arrasateko
Eroski
Merkatalgunean.





JENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen aldizkaria.

9. zenbakia. 1999ko urria.

Komertzialak: Uxue Zabaleta eta Nerea Zallo.

Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Truxuelo. Tirada: 11.600 ale.

Berrigara

Arrasate
PRESS

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30				
Peugeot 406 Break TD 2.1-110				*7
Peugeot 306 Sedan Diesel				*5
Peugeot 205 D			AG, LD	*3
Peugeot 106 Long Beach 1.1				*5
Peugeot 106 Sketch 1.1			5 ate	*4
VW Golf GTI				*2
Fiat Uno Turbo				*2
Fiat Tipo 1.4				*2
Opel Astra TD			4 ate	*4
BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43				
Ford Focus 1.6 i	SS-BG	1999	LD, KE, IZ, Airbaga, Pintura metalizatua, 5.000 km.	*7
Ford Fiesta 125 XRI	SS-AZ	1997	LD, KE, IZ, LK, aleroia, AH	*5
Ford Escort 1.6 RS	SS-AJ	1990	EBD, Autoblock, Km. gutxi	*3
Ford Sierra Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Fiat Tipo 16 AGT	SS-AK	1991	LD, KE, IZ	*2
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, AH, LK	*3
Renault Super 5 GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, AH, LK	*1

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagnak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Ibxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte

*2: 300.000-500.000 PTA

*3: 500.000-750.000 PTA

*4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA

*6: 1.500.000-2.000.000 PTA

*7: 2.000.000 PTatik aurrera

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84

 **IVECO**

Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA 

Javier Gallastegi Arenaza Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!
Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20

 **AGUSTIN**

Automobilaren
karburazio eta
elektronika 

Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

SAN MARTIN
KARROZERIAK

Autoaren konponketa
orokorrean

San Juan Auzoa:
Barrutitxiki pabiloiak, 1
Tel.: 943 76 07 97
Mugikorra: 608 77 11 83
20570 BERGARA



AUTO DESGUACES
BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu! 

 **Txorno**
Auto-errekantbioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

MARKA ETA MODELOA , **MATRIK.** **URTEA** **EZAUGARRIAK** **PREZIOA**

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroën ZX 1.9 TD Volcane		1993	5 ate, LD, KE, IZ, AH	*5
Opel Astra TD Intercooler		1994	4 ate, LD, KE, IZ, SE	*5
Suzuki Vitara 1.6 i		1998	3 ate, LD, 12.000 km.	*6

MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72

Megane Alicé 1.6	B 6853 TX	1998		*6
R-5 1.1 Five	BI 6209 BT	1993	3 ate	*3
Renault Express	BI 7304 BV	1994		*3
VW Golf Cabrio 1.6	SS 1118 AC	1988		*4
Opel Corsa City 1.0	SS 7100 AH	1990		*2
Ford Transit mistoa	VI 9802 N	1993		*3

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Ford Escort 1.6 i 16V	SS-AS	1994	AL, IK	*4
Opel Astra Caravan 1.6	BI-BV	1994	LD, KE, IZ, IK	*4
Fiat Tempra 1.9 TD	SS-AS	1994	LD, KE, IZ, IK	*3
Opel Vectra	Hainbat	1991-1999	Ugari	*3tik 8ra
Opel Omega 2.0 i	M-WL	1998	Ugari	*8

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagunak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispitu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatuak **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA
 *5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
 Gesalibar auzoa z/g. Tf. 943 79 99 61 • ARRASATE

ARRASATE KONPONKETAK

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- LUKAS Autoinjekzio zerbitzua
- HONDA eta LADA autoen salmenta

Saldizpe kalea, 5 • Arrasate •
Tel.: 943 79 95 41

Larriñan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

ALMACENES LASCAR S.L.

Amillaga 32, BERGARA.
943 76 10 38 / 76 19 11.
Faxa 943 76 59 60.


REPSOL
Banatzaile ofiziala

Olio aldaketa
 •
Errubera aldaketa
 •
Auto garbiketa:
 kanpotik eta barrutik
 •
Errebisio orokorra:
 frenoak, bujiak, korreak...

DESA/CRISTAL

IBILGAILUEN KRISTALDEGIA Tailer berria BERGARAN

- Auto, furgoi eta kamioiendako kristalen muntaia**
- Solar-check laminaren instalatzaile baimendua**



DESACRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia
Tf. 943 76 36 09.
Faxa: 943 76 73 45



35.000
IRAKURLE

Berrigara Arrasate

DENA **AUTO**

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Kontratazioa

Idoia Pozo

ARRASATE PRESS:
 Otalora kalea 31
 20500 Arrasate. Gipuzkoa
BERRIGARA:
 Errotalde jauregia z/g
 20570 Bergara. Gipuzkoa

Telefonoak:
 943 76 03 97
 943 71 23 91
Faxak:
 943 76 29 77
 943 71 23 89

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

1999ko eskaintza bereziak hauexek dira:
LERROA: 1.300 PTA
PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

Azken urteotako usadioari jarraituz, mendiko ganadu feria izan zen martitzenean, Pilarika egunean, Elosun. Antolatzaileek adierazi dutenez, aurreko edizio-tean baino jende gehiago bildu zen Iriaungo San Andres eliza-
ren inguruan. Oso kalitate handiko ganadua erakutsi zen: Elosuko eta inguruko baserrietako behiak, ardiak, astoak, ahuntzak eta zaldiak izan ziren ikusgai.

Ganadu feriaren inguruan era guztietako saltzaile ibiltariak biltzen dira: baserriarren arteko harremanak bultzatzeko, etxeko ganadua erakusteko eta tratuak egiteko ez ezik, beste hainbat salerosketatarako aproposak izaten dira era honetako feriak. Aurten sekula baino saltzaile anbulante gehiago bildu dira Elosun. "Cuatro mecheros a veinte duros" entzun genion trajedun gizonetako beltzarran bati. Hiru pare galtzerdi 500 pezetan, hiru kaltzontzilo 1.000 pezetan edota guardasola 500 pezetan (euria mugituz gero 1.000 pezetan) saltzen zituztenak ere ikusi genituen. Hau amama! Saltzaile ibiltariez gain, txorizo, odoloste edo hirugiharreen taloak, sagardoa, txakolina e.a. saltzen dituzten postuak, era honetako ferietan ohikoak direnak, ere izan ziren Elosun. Salgai ikusi genituen, era berean, gazta, menbrilloa edota ezitia ere.

MILIOI ETA ERDIKO AURREKONTUA

Joseba Lizarralde Elosuko auzo alkateak adierazi digunez "saltzaile ibiltarien postuak jartzea izaten da lanik neke-tsua; batzuk bezperan eta beste batzuk egunean bertan etorten dira. Goizeko seiretarako postuak montatzeari ekiten diogu" esan digu. Dударik ez da, hala ere, zenbat eta saltzaile gehiago, diru sarrera handiagoak lortzen dituztela.

Aurtengo ganadu feriak milioi eta erdi pasatxoko aurrekontua izan du. Herririk herri saltzen ibiltzen direnei kobratzen zaienarekin, Bergarako Udalak (680.000 PTA) eta Azkoitiko Udalak



Elosuko feria

Inoiz baino jendetsuagoa eta kalitate handiko ganadua ikusgai

(125.000 PTA) jartzen dutenarekin, autoei kobratzen zaien berrogei duronako sarrerarekin eta pilotalekuan jarritako tabernatik ateratakoarekin, feriak gastuei eta urte guztian zehar antolatzen diren beste festa eta ekitaldiei aurre egiten diete. Elosuk 25 bat biztanle besterik ez ditu, baina feria egunean 60 bat lagun aritzen dira lanean: postuak jartzen, trafikoa zuzentzen, tabernan...

EGURALDIA LAGUN

Azken bi urteotako feria egunean eguraldi txakur samarra tokatu da eta bes-tetan baino jende gutxiago bildu da. Joan zen martitzenean, berriz, lainope egon arren ateri izan zen eguerdi alde-
ra arte; eguraldi polita, beraz, feriarako. Bestalde, asteburu osoan eguraldi eguzkitsua izan dugu. Horrek, feriarako jende asko animatu zuen, Bergara

“Zaldia berrogeita hamar mila duro inguruan salduz gero, primeran!

Merkeago saltzekotan, hobe etxean geratzea...” zioen Asentzio Sudupek



eta Azkoiti aldekoak gehienbat, baina baita Deba Garaia, Goierri, Urola eta Tolosaldeko beste hainbat tokitakoak ere. Antolatzaileen esanetan, 8.000 bat lagun eta 3.000 bat auto bildu ziren Elosun joan zen martitzenean. “Zubia aprobetxatuz, kanpora joaten ez direnak eta bertan geratzen direnak eguna aprobetxatzen dute Elosura etorteko. Beste inon ez da festarik izaten eta eguraldiak lagunduz gero, auzo polita denez, jende asko etorten da eguna pasatzera” esan digu Joseba Lizarralde. Esan behar da, arratsaldeko lehen orduetan zaparrada majoak bota zituela eta arratsaldean ere euria egin zuela tarteka, baina euriak ez zuen jende asko kikildu.

Aurtengoa 21. edizioa izan da, 1979an ekin baitzieten feria antolatzeari. Iriaungo San Andres elizako esku-idatzietan jasota dagoenez, orain dela hiru mende ere egiten zen feria, baina bertaratuak sortaritzen zituzten istiluak eta liskarrak medio, Elizak festa eguna debekatu egin zuen. Orain dela 20 urte, ordea, berriz ere antolatzen hasi ziren eta, harrezkero, eten barik egin da urtero, Pilarika egunez, askoren iritzi inguruko feriarik arrakastatsu eta ederrena bilakatuz.



148 GANADU BURU

Joseba Lizarralderen iritzi, toki gutxitan biltzen da Elosun egoten den adina kalitatezko behi. “Zumarragako Santa Luzia ferian, esaterako, zaldi ganadua eta asko egoten da, baina behi, idi eta txekorrei dagokienez, Elosun izaten da beste inon baino gehiago, eta kalitate handikoa gainera”. Besteak beste, Antzuola, Bergara, Azpeitia, Azkoitia, Zestoia eta Albisturreko hainbat baserriko ganadua izan zen ikusgai, baina gehienak Elosukoak bertakoak ziren. Guztira 148 ganadu buru erakutsi ziren: zazpi ardi, beste zazpi behor eta zaldi, hiru pottoka, lau asto, hamar bat txekor, ha-

mabost bat idi, ahuntz batzuk eta gainerako guztiak, okelarako behiak.

Azkoitiko Olaso baserriko Asentzio Sudupek zaldi parean eroan du aurtengo Elosuko feriarik: Rubia izeneko bederatzireko behorra eta 19 hilabeteko Txikito izeneko zaldia. Azkenaldian urtero igo izan da, “joan daneko zortzi urteetan behorrak ekarri izan ditut” esan digu. Bere esanetan, “bertan saltzea zaila da, baina tratuetarako lehenengo harremana egiten da ferian. Ganadu ferria baino, jende feria ematen du honek. Jende asko baitabil atzera eta aurrera”. Goizeko hamarretarako bi lagunekin lehendabiziko harremana eginda zuen



Elosuko Mendiko Ganadu Feriako XXI. edizioko sari gehienak Elosura bertara eta Azpeitira joan ziren.

Gainerakoak, Antzuolara, Zestoara eta Albisturrera.

Azpeitiko Agite baserriko Antonio Olaizolak hiru sari eroan zituen: behi talderik onenarena, blonda arrazako behirik onenarena eta zezenik onenarena. Saritutako guztiei, trofeo bana eman zitzaion

Sarituen zerrenda

Behi taldea: Antonio Olaizola, Agite baserrikoa (Azpeitia)

Blonda arraza: Antonio Olaizola, Agite baserr. (Azpeitia)

Pirenaika arraza: Irumendi elkarte (Antzuola)

Asturiar arraza: Agustin Badiola, Kortaberri baserr. (Elosu)

Limousin arraza: Juan M. Lizarralde, Aritz Ederraga baserr. (Elosu)

Gascoigne arraza: Mateo Gabilondo, Agarre baserr. (Elosu)

Charolesa arraza: Pako Badiola, Bentaoste baserr. (Elosu)

Suiza arraza: Lopene (Zestoa)

Zezenak: Antonio Olaizola, Agite baserrikoa (Azpeitia)

Idiak: Luis Mari Aiastui, Aostondo baserrikoa (Elosu)

Ardiak: Jose Mari Beristain (Azpeitia)

Behorak: Asentzio Sodupe, Olaso baserrikoa (Azpeitia)

Astoak: E. Telleria (Albistur)

Goizean goizetik, artean ateri zela, jende andana bildu zen Elosun. Guztiek goraipatu dute erakutsitako ganadua, kalitate handikoa. Era honetako ferietan ohikoak diren kinkilleroek eta talo saltzaileek ere ez zuten hutsik egin.

aurten feriarra. Bi eta erdi edo hiru mii loitan saltzeko esperantza zuen. Esan digunez, "zortzi behi, txahalak, ardiak eta idi pare hau daukagu etxean, denetik..., baserrian saltsa egon dadila da kontua".

HERRI KIROL EN SAIOA

Goiz eta arratsalde, Lutxurdio trikitilaria aritu zen festa giroa alaitzen eta bazkal ostean, herri kirolen saioa izan zen. Arratsalderako giroa freskatu egin zen eta tarteka euria egin zuen, baina jende ugari bildu zen pilotalekuaren inguruan. Lehenengo Elosukorta eta Goenatxo harrijasotzaileen erakustaldia izan zen. Bi minutuko ekinaldiak egin zituzten. Elosukortak, lau jasoaldi egin zituen 200 kiloko errektangularrarekin; Goenatxok, berriz, hiru jasoaldi 250 kiloko errektangularrarekin.

Jarraian, Elosukorta eta Mugertza, Goenatxo eta Iñaki Floresen aurka aritu ziren lehian harrijasotzen, aizkoran, trontzan, txinga eroaten eta korrikan. Kanaerdiko egurra ebaki, 125 kiloko kubikoa bost bider jaso, trontzan bost epai eman eta txingetan bi plaza eta korrika lau buelta egin behar izan zituzten. Azkenean, Elosukorta eta Mugertza nagusitu ziren.<

eta eguerdirako saltzeko esperantza zuen. "Berrogeita hamar mila duro inguruan salduz gero, primeran!. Merkeago saltzekotan, hobe etxean gertatzea...". Santa Luziako feriarra eta Altsasura joateko ohitura dauka, baina ahal dela, ingurukoetara bakarrik.

Elosuko Aostondo baserriko Luis Mari Aiastuik ez du inoiz hutsik egin. Oso gertuan bizi denez, etxeko jeneroa plazara ateratzeko ohitura dauka. Bere ustez, Elosukoa feria oso ona da salmentetarako. Beti saldu izan du behi edo idiren bat. Gainera, iaz bezala, aurten ere idi onenen saria eman diote. Sei urte eta erdiko idi pare ederra eroan du



LM. Aiastuik idi onenaren saria jaso zuen.

Behobia Txiki lasterketaren IV. edizioa datorren zapatuan

Partaideek 15 kilometro inguruko ibilbidea egingo dute

Datorren zapatuan, urriaren 23an, Behobia Txiki lasterketaren lau-garren edizioa jokatu da. Partaideek, Bergara eta Soraluze arteko joan-etorria egingo dute trenbide zaharretik, 15 bat kilometro guztira. Irteera goizeko 10:30etan egingo da Agorrosingo igerilekuetatik.

Parte hartu nahi dutenek agindutako orduan Agorrosinen aurkeztu besterik ez dute egin behar. Ez dago izena eman beharrik lasterketan parte hartu ahal izateko.

Proba hau Behobia-Donostia lasterketa gertatzeko entrenamendu gisa hasi zen antolatzen eta urtetik urtera partaide kopuruak gora egin du, emakumeen partaidetza faltan bota bada ere. Aurtengo edizioan 70 lagun inguru bilduko direla uste dute antolatzaileek. Inaki



Goiko eta beheko argazkietan Behobia Txikiko aurreko edizio baten irudiak ikus ditzakezue.

Anduezaren hitzetan, "Behobia-Donostia korritzera sekula joan ez den jendeari primeran datorkio Behobia txikian parte hartzea, tropelean korritzen ikasi eta erritmo jakin batera egokitzera-ko orduan. Bestalde, kon-

fiantza hartzen joateko lagungarria izaten da Behobia korritu baino lehen proba luzeren batean indarrak neurtzea". Inakik argitzen duenez, "gure lema zera da: presarik gabe eta saririk gabe. Urtean zehar pisinetan korritzeko elkartzen garen guztion festa moduko bat da eta horri eutsi nahi diogu. Ez da inolako saririk egongo, giro onean korritu eta ondo pasatzea da helburu nagusia".

TRENBIDE ZAHARRA

Era berean, Behobia txiki lasterketaren bitartez trenbide zaharra aldarrikatu nahi dute korrikalariek; "hobe-kuntza batzuk egin dira baina bidegorria egin eta argiak jartzea ezinbestekoa ikusten dugu, urte guztian zehar jende asko ibiltzen baikara trenbide zaharrean

entrenatzen". Datorren zapatuko probaren ondoren, bazkari herrikoia izango da Iraho jatetxean eta bertara joan nahi dutenek jatetxean bertan eman dezakete izena.

BEHOBIA-DONOSTIA

Gogoratu, bestalde, Behobia-Donostia lasterketa datorren azaroaren 14an izango dela. Izen ematea azaroaren 7ra arte izango da zabalik. Urriaren 31 baino lehen apuntatzen direnek 1.700 pezeta ordaindu beharko dituzte eta azaroaren 2tik 7ra bitartean izena ematen dutenentzat prezioa 2.500 pezetakoa izango da. Bergaran, Bolintxo kirol dendan eman daiteke izena. Joan zen urteko edizioan 100 bergarar inguruk hartu zuten parte Behobia-Donostia lasterketan.



Frontenis txapelketa

Bihar, zapatua, frontenis txapelketaren hirugarren edizioa jarriko da martxan. Guztira, 12 bikote arituko dira lehian eta partiduak zapatu goizetan jokatu dira Angiozarko Arbiaska pilotalekuan.



Artxiboko argazkian, Igeri elkarteko water polo taldea.

Waterpolo talderik ez da aterako aurten

Bergara Igeri Elkartek ez du aurten waterpolo talderik izango. Taldea desagertzeko arrazoi nagusia ekipoa osatzeko nahikoa jokalarik ez egotea izan da. Bergarako waterpolo taldea orain dela 6 urte osatu zen eta Gipuzkoa zein Euskadiko ligan parte hartu izan du. Azken denboraldian, Gipuzkoako liga eta kopa txapelketan azpitxapeldunak izan genituen bergararrak, Hernaniko taldearen atzetik. Taldeak ez zuen parte hartu azken Euskadiko ligan. Gipuzkoako ligan, etxeko partiduak Oñatiko Kiroldegian jokatu zituen Bergarak, Agorrosingo igerilekuek waterpoloan aritzeko eskatzen den sakonera minimoa ez dutelako. Oña-

tiko igerilekuak erabiltzeagatik, partidu bakoitzeko 5.000 pezeta ordaintzen ziotuen igeri elkarteak.

Unai Alberdi taldeko jokalariaen hitzetan, "azken ligan hamabi bat jokalarik ginen taldean baina aurtengorako baja batzuk izan ditugu eta baldintza horietan ezinezkoa zen taldea antolatzea. Uztailean, jokalaria hartzeko deialdia egin genuen baina ez zen inor azaldu. Entrenatzailek ere ez geneukan, eta horrek ere eragina izan du erabakia hartzeko orduan, taldea motibatzea oso zaila zelako".

Waterpolo taldekoek utzi egingo diete Bergarako igerilekuetan egiten zituzten entrenamenduei.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Almen

Lehen mailako kadeteak
Zapatua. 16:00. Ipintza

Bergara-Urki

Nesken partidua
Zapatua. 17:30. Ipintza

Bergara-Billabona

Ohorezko mailako kadeteak
Domeka. 11:00. Ipintza

SASKIBALOA

Bergara-Irun

Senior neskek
Zapatua. 16:00.
Mariaren Lagundia

Bergara-Lesaka

Senior mutilak
Zapatua. 19:00.
Labegaraietako Kiroldegia.

Bergara-Lazkao

Jubenil mutilak
Domeka. 12:15.
Mariaren Lagundia

PILOTA

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Bergara-Aretxabaleta

Bigarren mailako kadeteak

Bergara-Alzatarra

Lehen mailako jubenilak (banaka)

Bergara-Aloña Mendi

Bigarren mailako jubenilak

Bergara-Tolosako Aurrera

Lehen mailako jubenilak
Gaur, urriak 15, eguakitzatza. 19:30.
Bergarako Udal Pilotalekua

CAFE BAQUE TXAPELKETA

Azkoaga (Deba)-Aranburu (Bergara)

Gracia (Eskoriatza)-Unanue (Deba)

Martitzena. 19:30. Bergarako Udal Pilotalekua.

Aholkularitza fisikoa

Datorren astetik aurrera aholkularitza fisikoa zerbizua eskainiko da Agorrosingo igerilekuetako gimnasioan. Inaki Ugarteburuk gimnasioa bukuruzko azalpenak eman go dizkie erabiltzaileei, astelehena 8etatik 10etara eta ostiraletan 13:00etatik 15:00etara.

Kirol medikuntza

Kirol Zerbitzuren kirol medikuntza zerbitzua martxan da dagoneko. Kirolari federatuek zein gainontzekoekin oinarrituko azterketa eta esfortzu frogak egiteko edo lesioen tratamendurako jo dezakete bertara. Argibide gehiago, Kirol Zerbitzuan. Telefonoa: 943 77 91 67).

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

URRATS

TABERNA

KOKTEL BEREZIAK GAUETAN

Ibargarai 4
943 76 52 92

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55



Labegaraietako futbito txapelketa

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Urrutxurtu-Mongatxurak
10:30: Bayer-Bildurbarek Opel Lam
11:30: Torrekua-Ion Autoak
12:30: Guadalest-Komando Piperrak
16:00: Artusamak-Bar Canalejas

Bayer
Torrekua
Guadalest
Ion Autoak
Shaktale

ZAPATUAN KANPOAN

17:00: Shaktale-Ortzi

Artusamak

DEMEKAN BARRUAN

09:30: Ufala-Txipiron
10:30: Vacalouras-Agiñazpi
11:30: Errotagain-Aterpe
12:30: Fac-Xurruapak
16:00: Pinturas Bergara-Moskis
17:00: Pagomendi-Etengabe
18:00: Soropotroak-Uve Bikoitza
19:00: A Ze flaxa Etxagi-Buya
20:00: La Juve-Inubide jatetxea

Vacalouras
Errotagain
Fac
Aterpe
Pagomendi
Soropotroak
A Ze Flaxa
La Juve
Buya

DEMEKAN KANPOAN

09:30: Tom Cat Argandolas-Patatus
10:30: Agirrebeña-Patxaran Team
11:30: Mo(ko)lotov-Ari Ari
12:30: Azpeitxi Jatetxea-Eri

Agirrebeña
Ari Ari
Azpeitxi
Mo(ko)lotov

EMAITZAK

A MULTZOA

Etengabe-Mo(ko)lotov 1-3
Moskis-Pagomendi 1-7
Ari Ari-Azpeitxi Jatetxea 3-5

B MULTZOA

Patxaran Team-Amilotx 2-7
Patatus-Agirrebeña Jatetxea 3-7
Bildurbarek Opel Lam-Urrutxurtu 7-2

C MULTZOA

Buya-Ion Autoak 2-1
Uve Bikoitza-Vacalouras 6-1
Buya-Torrekua 8-1
Ortzi-A Ze Flaxa Etxagi 3-5
Shaktale-Uve Bikoitza 4-4

D MULTZOA

FAC-Bar Canalejas 3-9
Artusamak-Guadalest 8-1
Txipiron-FAC 2-2
Xurruapak-Erotagain 1-5
Ufala-Komando Piperrak 2-1
Komando Piperrak-Artusamak 1-7
Aterpe-Guadalest 3-4

GORA ETA BEHERA



lazko lehen mailako talde batzuk

Dagoeneko hiru jardunaldi jokatu dira eta Labegaraietako txapelketan azken urteotan nabarmendu diren taldeak, izaz lehen mailan aritutakoak, ditugu sailkapen-buru: Pagomendi, Mongatxurak, A Ze Flaxa Etxagi eta Errotagain.



Batere puntu barik daudenak

Sailkapenaren behealdean, oster, orain arte partidu guztiak galdu dituztenak ditugu. Bildurbarek Opel Lam taldeak azken jardunaldian irabazi zuen, baina oraindik puntu barik dago, lehenago hiru puntu kendu zizkiotelako.

ARGI! Txartel horiak aktan jaso

Antolaketa Batzordeak partiduak arbitratzen dituzten taldeei eskatu nahi die, ateratzen diren txartel horiak aktan jaso ditzatela. Bestalde, FAC taldeko Ibai Biainek partidu bateko zigorra bete beharko du jardunaldi honetan, partidu berean bi txartel hori ateratu zizkiotelako.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	9	3
2. Azpeitxi Jatetxea	9	3
3. Ari Ari	6	3
4. Mo(ko)lotov	6	3
5. Eri	3	2
6. Etengabe	3	3
7. Moskis	3	3
8. La Juve	0	2
9. Inubide Jatetxea	0	2
10. Pinturas Bergara	0	2

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	9	3
2. Ortzi	6	3
3. Shaktale	4	2
4. Agiñazpi	3	1
5. Ion Autoak	3	2
6. Uve Bikoitza	3	2
7. Buya	3	2
8. Vacalouras	3	3
9. Soropotroak	0	2
10. Torrekua	0	3

B multzoa

	P	J
1. Mongatxurak	6	2
2. Urrutxurtu	6	3
3. Amilotx	6	3
4. Agirrebeña Jatetxea	6	3
5. Bayer	4	2
6. Tom Cat Argandolas	3	2
7. Amiozkibar	3	3
8. Patxaran Team	0	3
9. Patatus	0	3
10. Bildurbarek Opel Lam	0	3

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	9	3
2. Artusamak	6	2
3. Xurruapak	6	3
4. Guadalest	6	3
5. Bar Canalejas	6	3
6. FAC	3	2
7. Ufala	3	3
8. Txipiron	1	3
9. Komando Piperrak	0	3
10. Aterpe	0	3

mahoneroak



JOSETXO LIZARRALDE
BKEko jokalaria

Bi partidu jokatu ditugu astebukaeran eta, egia esan, ez dugu zorterik izan. Sesta-oren kontra aurretik jarri ginen markagailuan eta epaileak euren jokalaria bat kaleratu arren, ezin izan genuen punturik eskuratu. Beharberda berdinketa emaitza justu-agoa izango litzateke.

Martitzeneko partiduan, berriz, lehen zatia nahiko parekatuta egon zen eta gaitzen hasi arren, markagailuan aurretik jartzeko aukerak izan genituen lehen zatian. Arbitroak zorrotzegi an dira gurekin eta Andueza kaleratu zutenean, partidu erdi erabakita geratu zen. UPVk merezimendu osoa irabazi zigun. Orain Eibar eta Realaren kontra jokatu beharko dugu eta fin aritu beharko gara sailkapeneko behealdera ez jaisteko.

Berrigara Saria

UPVren kontrako partiduan hauek nabarmendu ditugu:


Mikel Osoro 3 puntu
Oxel Apraiz 2 puntu
Arkaitz Arana Puntu 1

Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Ganbara TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

AGOITZ Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
BERGARA
Tf.: 939 84 57 47

■ kronika: eskubaloiko senior mutilak

Derbya bergararren alde

BERGARA 23

ARRASATE 16

1999-X-10. 12:15

KIROLDEGIA

Bergara: Ekain Sotil, Garikoitz Arregi (6 gol), Ruben Sanchez, Asier Arana (2), Aitor Sanchez, Mikel Agirrezabal (gol bat), eta Asier Mujika (7) –hasierako zapikoa–, Raul Pozo (4 gol), Urko Altzerreka (gol bat), Aritz Mazkieran, Ibai Gomez eta Aitor Aldanondo (2 gol).

Partzialak: 5-0, 5-2, 8-2, 9-3, 10-4, 12-7, 16-11, 18-12, 19-16 eta 23-16.

Senior mutilen taldeak sendo jarraitzen du ligan eta domekan beste garaipen bat eskuratu zuen Arrasate-



Senior mutilen taldea, domekako partiduaren atarian.

ren aurka (martitzenean ere 16-24 irabazi zuten Hernanin). Xabier Lijok zuzentzen duen taldeak hasiera bikaina eman zion partiduari eta berehala bost goleko tartea lortu zuen. Arrasatearrak ez ziren gauza bergararren erasoeri aurre egiteko eta zazpigarren minuturarte ez zuten

euren lehenbiziko gola lortu. Etxekoen jokoak behera egin zuen lehen zatian erdialdean; ez zuten tentsio berarekin jokatu, kontzentrazioa galdu zuten eta aldatzekin izandako despiste batzuen erruz, bisitariak zertorkien gol zaparrada saihestu egin ahal izan zu-

ten. Arrasatek talde gaztea du eta oraindik ere Bergara bezalako talde baten kontra jokatzeko asko hobetu beharko du. Hala ere, eta ia partidu osoan zehar bost goleko tarteari eutsi izanagatik ere, bergarrek ez zuten partidu onegia jokatu domekan.

Lehen zatia 12 eta 7eko emaitzarekin bukatu zen. Jarraian, lehen zatian ikusitakoak jarraipena izan zuten. Bergarak erraz dominatzen zuten jokoa eta Asier Mujikak, ezkerreko hegaletik, behin eta berriz gainditzen zuten Arrasateko atezaina. Bera eta Garikoitz Arregi izan genituen partiduko onenak etxekoen aldetik. Arrasateko entrenatzaileak Arregiren aurkako markaketa indibiduala agindu arren, Arregik bere esperientzia azaldu zuen taldea gidatu eta golak egiteko orduan. Bergarak tartea handitzeko aukera paregabea galdu zuen, penalti jaurtiketetan ez baitziren fin aritu. Atezainak hiru penalti gelditu zituzkien. Hamar bat minutu falta zirela Arrasatekoek alde murritzuz zuten baina bergararren erreakzioak amaiera-ko emaitza ekarri zuten.

ASIER GARITANO/ Burgos taldeko jokalaria

"Konpetentzia izugarria dago 2.B mailan"

Bilbao Athletic, Eibar, Cartagena edota Cadiz taldeetan aritu ondoren, hirugarren denboraldia betetzen ari da 2.B mailako Burgosen Asier Garitano bergararra (29 urte). Asteazkenean 1-3 irabazi zuten Valladolid B taldeari egindako bisitaldian.

G. Azken partiduetan fin zabilzate.

E. Bai, ez genuen hasiera ona izan ligan baina azken hiru partiduak irabazi ditugu eta sailkapeneko bederatzigarren tokian gaude. Ni ere pozik nago. Valladoliden lehenbiziko aldiz jokatzeke geratu naiz. Hala ere, orain arte etxeko partiduetan

fijotako bat izan naiz eta kanpoko partiduetan ere atera izan nau entrenatzaileak.

G. Bigarren B mailan konpetentzia handia dago.

E. Kategoriarik zailena da. Ligan primeran aritu arren, ondoren igoerako play-offa jokatu beharra daukazu eta hori loteria bat izaten da askotan. Aurreko denboraldian play-offerako sailkatu ginen baina Elche izan zen 2.A mailara igo zena. Errezagoa da 2.A mailan mantentzea 2.B mailatik igoera lortzea baino.

G. Aldaketa asko izan da taldean?

E. Joan zen denboraldiarekiko 15 jokalaria berriak dira. Arnaiz entrenatzaileak jarraitzen du baina ia ekipo osoa aldatu du.

Duela hiru urte etorri nintzenetik Lucio kapitainak eta biok jarraitzen dugu bakarrik. Imanol Ildiabez (Iñigoren anaia) ere etorri da taldera Aviles-etik.

G. Ikusle asko izaten da etxeko partiduetan?

E. Betikoak, 2.000 inguru.

Burgosen egiten duen hotzarekin asko pentsatu beharra daukazu futbole-
ra joateko.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Ibargarai. Estreinatze-ko. 610 80 37 19.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

EROSI

Pisu txiki bat erosiko nuke Bergaran. Deitu 656 72 02 42 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Torremolinos. Hondartzan ondoan. 943 76 33 58.

Logela bat errentan Donostian, Amaran. 943 76 55 26 (gauze).

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. 689 991 070.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

ESKAITZAK

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. Deitu 943 76 46 07 telefonora.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauze. 610 01 06 19

Etxeak garbitu edo zaharrak zainduko nituzke. 600 600 531.

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94

Neska edozein lanetarako gertu, arratsalde. Deitu 943 76 00 24 telefonora.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 619 15 44 06 (Fran).

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Umeak zaindu arratsalde. 943 76 34 48 (Marja).

Astebukaeretan zaharrak zainduko nituzke. Deitu 943 76 50 46 telefonora (gauze).

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. Deitu 943 76 11 13 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

Bergaran edo inguruan pisua alokairuan hartuko nuke. 943 76 03 31.

Bikote batek pisua alokairuan hartuko luke Bergaran edo Arrasaten. 619 15 44 06 (Fran).

ETXE KONPARTITUAK

Bilbon pisua konpartitzeko laguna behar da. Deitu 943 76 03 21 telefonora.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. 943 76 28 17.

Bergaran lagun bat behar da pisua osatzeko. 656 72 02 42.

2. GARAJEAK

SALDU

Torreku. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Antzuolan, Lizarragan,

salgai edo alokairuan. 670 49 87 40.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Torreku. 943 76 28 24.

Bolu. 943 76 19 69.

ERRENTAN EMATEKO

Antzuolan, Ibarrondon. Deitu 943 76 61 15 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 33 76.

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

ESPOLON
INGELESA
Talde berriak
Hasierako ikastaroa helduendako
Goizez eta arratsaldez
First Certificate, maila ertaina
Goizez eta arratsaldez
School of English
Umeak, 6 urtetik aurrera
INFORMAZIOA:
Ibargarai 31, barruko plaza. Tf. eta faxa 943 76 03 53.
Astelehenetik eguakitzera 10:00-12:30.

Asteburuetarako
sukalde-
laguntzailea eta
zerbitzaria
behar dira
943 76 22 68

telkar
Ibargarai 2
943 76 27 11

Poltsikoko telefonoa
9.900 pezetan eta
11.000 pezeta deietarako
Eta eskaintza bereziak ordenagailuetan!

ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 31 86.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 07 89 (gauetz).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Kitarra klaseak ematen ditut. 943 76 45 73.

Majisteritzan diploma-
tuak OHO klaseak ematen ditu. 943 76 57 70.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta. 943 76 51 01.

Peugeot 205. Prezio ona. Deitu 943 76 36 74 telefonora.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 19-16 V. 1, 3 milioi. 943 79 10 08.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. Deitu 943 76 42 76 telefonora.

Vespa Iris 200 motorra (SS-AF). 943 76 06 92.

Renault Clio Williams (SS-AP) salgai. 945 24 11 25.

Derbi Senda motorra (49 cc.) egoera onean salgai. 943 76 09 27 (Ivan).

7. ANIMALIAK

SALDU

Artzain aleman txakur-

kumeak. Pedigreedu-na. 696 05 73 46.

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea jasotzen da. 943 76 49 09.

Spaniel breton txakurkumeak. 943 79 19 63.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Fotokopiadora, faxa eta mahaiak. 607 34 46 58.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Apalak salgai. 943 76 25 79 (gauetz).

Canyon piragua salgai. Deitu 943 76 62 63 telefonora.

Modema eta idazkama-kina elektronikoa. 619 15 44 06 (Fran)

Piragua bat salgai. Oso egoera onean. 943 76 16 60 (Jabier).

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27 (Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Sony bideokamera prezio onean. 639 936 841

EROSI

Bigarren eskuko garbigailua erosiko nuke. 607 47 14 61.

GALDU

Urrezko medaila eta kaitaia (V.A. inzialak) galdu ditut Plaza inguruan. Sarituko da. 943 76 19 40.

Urrezko pultsera galdu dut. N.L. 94-IV-29 inskripzioarekin. 943 76 03 72.


Pultsera galdu dut., urriaren 7an. Urrezkoa harri urdinekin. Eskertuko da. 943 76 72 76 / 12 41.

Urrezko pultsera galdu da, Nora izenarekin. Deitu 943 76 08 40 telefonora.

9. HARREMANAK

KONTAKTUAK

41 urteko gizon batek emakumea ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

SOLDATZAILEA
Goierri. 22979/5

KARROZERIA
Bidaso Behea. 23871/3

KARROZERO OFIZIALA
Arabar Lautada. 24350/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 24173/2

PROGRAMATZAILEA
Deba Garaia. 24362/2

IGELTSEROAK, 2
Deba Garaia. 24363/2

AROTZA
Deba Garaia. 24365/2

METAL AROTZA
Arabar Lautada. 24420/2

SUKALDARIA
Malaga. 24427/1

AUTOMOZIO MEKANIKARIA
Urretxu. 24456/1

FRUTA-SALTZAILEA
Urola. 24529/6

INJINERU TEKNIKO MEKANIKARIA
Bilbo. 24486/4

INJINERU TEKNIKOA
Ibai eskualdea. 24556/4

MATRIZERIA ETA MOLDEAK, LH-II
Durangaldea. 24561/1

AUTOMATA PROGRAMAGARRIEN IRAKASLEA
Donostia. 24830/1

OSASUN LABORALERA-KO IRAKASLEA
Donostia. 24839/1

MANTENIMENDU ELEKTROMERKANIKORAKO TEKNIKARIA
Durangaldea. 24862/1

INDUSTRIA INJINERUA
Bilbo. 24873/2

INSTALATZAILE ELEKTRIKOAK, 10
Bilbo. 24875/1

INJINERU TEKNIKOA
Bilbo. 24893/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

943 76 03 97



Berrigara GIDA 99an agertzen ez bazara eta 2000.ekoan agertu nahi baduzu, edo zure telefono edo helbidea oker agertzen bada, dei ezazu Berrigarara. Mila esker.

Berrigara



SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK
AGENTEA-DELEGATUA



LAN ESKAINTZA

Komertziala Bergararako
Egun osoko edo egun zatiko jarduna


Baldintzak

- Erdi mailako ikasketak
- Sen komertziala
- Dinamikotasuna

Interesatuok laga zuen Curriculum Vitae Ramon Maria Lili 6ko bulegoan 15 egun baino lehen.

Udazken-neguko jantziak erakutsiko dituzte herriko dendariak domekan

Raul Luqueren aldeko moda desfilean ia 100 modelo jardungo dute



Orain dela hiru urte, Jam aretoa inauguratu zenean, antolatu zen moda desfileko irudi bat.

Bergarako jaietan Bideberritik errekarra jausi zen Raul Luqueren alde sosaldeko udazken-neguko moda desfilea antolatuko da Jam aretoan domeka honetan arretsaldeko 6etan hasita. Aretoko sarrerak orduerdi lehenago irekiko dira eta desfilea puntu-puntuari hasiko da antolatzaileek adierazi dugutenez.

Bergarako denda hauek izango dira Udazken neguko moda desfilean: Subijai, Jauja, Ikusbi, Agirre, Igarza, Cristina, Laket, Nerea, Zatoia, Bergara Piel eta Manso optika. Hauekin batera, Gasteizko Dochy Novias ere bai. Aipatutako dendez gain, Bergarako Udalak, Jam aretoak, Bergaraprint-ek eta pasarelan desfilatuko duten modeloei musutruk lagunduko dute. Sarrerak 1.000 pezetan salduko dira Ariznoa, Ganbara eta Deportivo tabernetan eta Jam-eko lehiatilan bertan, saioa hasi baino ordu bete lehenago. Batutako diru guztia Raul Luquerentzat izango da.

Esan behar da herriko dendari guztiek ez dutela desfilean parte hartuko. Baster jantzidendako arropak, esaterako, ezin izango ditugu ikusi. Mariaje Ibañez Basterrekoak argi laga nahi izan du ez duela desfilean parte hartuko antolatzaileen aldetik ez duelako gonbitarik jaso eta desfilean parte hartzeko eskatuko baliote bertan izango zela esandio BERRIGARARI. Desfilearen motiboarekin arduratuta dagoela eta horrelakotan laguntzeko prest dagoela argi utzi nahi izan du.



Txikiak

ume eta gazteen oinetakoak



Arrasate

Otalora lizentziatua 21. Tf. 943 79 44 70.



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A beheko ezkerrean
Tf. 943 76 71 19



Adin guztietakoentzako arropak erakutsiko dira domekako moda desfilean.

Denda bakoitzak gutxienez 12 jantzi eta gehienez 18 aurkeztuko ditu eta lentzeria, kirol jantziak, gizonetako zein emakumezkoentzako udazken-neguko arropak, larrukiak eta ezkongaiantza-koak erakutsiko dira.

Marisabel Hurtado izango da ekoizpen eta koreografia arduraduna. Bere hitzetan, "Bergaran sekula egin den moda desfilerik ederrena eta ikusgarriena izango da domekako". Denda bakoitzak bere koreografia eta musika aukeratu ditu, bere jantziei eta dendaren estiloari ondoen egokitzen zaizkienak, eta musika-teknikari lanetan Jam-eko musika jartzaileetako bat ariko da; aurkezlea, berriz, Aitziber Azkondo kazetaria izango da.

ADIN GUZTIETAKOAK PASARELAN

Adin guztietako 90 bat lagunek desfile-tuko dute pasarela gainean. Guztiak afizionatuak dira, hau da, ez dago modatik bizi denik. "Hasieran 6 profesio-

nal ekartzea burutik pasa zitzaidan, baina denak afizionatuak izatea hobe iruditu zait. Zergatik? Batzen den diru guztia Raulentzat izango delako eta, bestalde, profesionalak desfile-tuko baltute agerian geratuko lirakeelako hartara dedikatzen diren eta ez diren arteko ezberdintasunak. Hortaz, desfile-tuko duten guztiak zaletuak direla eta musutruk lan egingo dutela azpimarratu nahi dut eta, bereziki, Raulen koadrilako mutilek egingo duten lana nabarmenduko nuke, gizonetakoentzako lantzeria pase ikusgarri eta pikante eskainiko baitigute" diosku Marisabel Hurtadok.

Antolatzaileek 1.000 sarrera saldu nahi dituzte. Beraz, esan daiteke aretoa leporaino beteko dela, orain dela hiru urte sasoi honetan herriko dendariak Jam-en antolatu zuten desfilean gertatu zen bezala. Aretoaren behealdean, moda desfilea ikusteko 300-400 bat aulki jarriko dira eta taulatuaren erdialdean pasarela luze bat jarriko dute.

erreseinak



Jaime Cela
Isiltasuna bihotzean
Narratiba

Valentzia, Galizia, Katalunia, Asturias, Aragoi eta Euskal Herriko zazpi argitaletxeren artean sortutako elkarlanerako plataforma da Argitaletxe Elkartuak. Kultura minorizatuak bultzatzeko nahiak eta literatur zaletasunak elkartu dituzte eta estatuko hizkuntza minorizatueta sortutako lanak argitaratzea dute helburu. Jaime Cela katalanaren "Isiltasuna bihotzean" Gerardo Markuleta euskaratu du. 36ko gerra zibilean girotuta dago. Gerrak dakartzan zoritxarrekin batera, beren herriko bizimodu aldatuko duten gertakarien erdian, bi mutiko adiskideren arteko gora beherak kontatzen zaizkigu.

- Elkarlanean. 164 orr. 1.100 PTA



Berri Txarrak
Ikasten
Metal

Berri onak dakarzkigute naparrek oraingoan, "Ikasten" izeneko bigarren diskoa abesti onez josita baitator. Estrainekoan erakutsitako oinarritzko metal soinuak atzean laga dituzte eta kanta landuagoak eskaintzen dizkigute oraingoan. Korn bezalako taldeen metal riffekin batera, Seattleko zein Californiako Red Hot Chili Peppers-en soinuak ere gogorazten dituzte hainbat abestitan, eta erritmo azkarragoekin batera, ertainak eta lasaiagoak tartekatzen dituzte.

- Gor. 2.300 PTA

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Eskaerak. 2. Xarmangarri. 3. Artsenikoa. Elezaharrak. 4. Zeharo erre. Arabako alderdi espainola. 5. Ezeztapenak. Ez on. 6. Karta jokoa. Bokal errepikatua. lodoa. Bokala. 7. Oparitu. Kontsonente bikoitza. Berrogeita hamar. 8. Zekena denaren nolakotasun. 9. Errepikatuz, gorotza. Sufrea. Janari ongailu. 10. Egokiera. Urrea.

Goitik behera

1. Emakume. 2. Bastartak. 3. Modu atzizkia. Txanponak. Lehenengoa. 4. Mendiko atea. Eskoziako laku ezaguna. 5. Ardiaren oihua. Nitrogenoa. Bat. 6. Batrazio mota. Gipuzkoako herria. 7. Egiten dut. Larra iraultzeko lanabesa. 8. Gaixo. Hamaika. Atzizkia. 9. Legea. Lente konbergentea. 10. Katilua. Ni.

Soluzioa

10. Kikera. Neu. 9. Arana. Lupa. 8. Eri. XI. Sa. 7. Baka. N. I. 6. Igel. Alizo. 5. Sotak. A. 4. Ataka. Ness. 3. Sastikumeak. 2. Sasikumeak. 1. Goitik behera. 10. Zape. 10. Okasio. Au. 8. Zekentasan. 6. Mus. Aa. I. A. 4. Kiskail. UA. 2. Maritagarri. Ezker eskuma

bonofotoa




Miguel Angel Elkoroberezibar

Atarian jartzen duen bezala, zein da etxe honen izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Zer kaletan eraikiko dute autobus geltokio berria?
A- Fraiskozurin
B- Torrekoan
C- Espolioan
- Elosuko ganadu ferian nork jaso zuen behi talde onenaren saria?
A- Agustin Badiolak
B- Luis Mari Aiaituik
C- Antonio Olaizolak
- Hil honetako zein egunetan jokatu da Bergaran Behobia txikia?
A- Urriaren 16an
B- Urriaren 23an
C- Urriaren 30ean



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileen artean!



Aurreko aleko saria, **M. Pilar Elkoro-Iriberentzatz** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak M. Pilar! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Boni Laskurain / Txistua** Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:


Izen-deiturak: Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Marcilla
kafe ehotzia/ehotzi nahasia,
250gr.
199 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Berrogei urte dittu eta hamalau daroia Jose Angel Roigek udaltzain lanetan. Ezkondua, bi seme-alabekin, gustoko dau bere lana jendiakin harremanetan egotia eskatzen dotsalako eta bulego lana baino gehiago kalekua dalako.

Jose Angel Roige



Zure lanian gustoko dauzkazun hiru gauza.

Jendearekin egotia, laguntza eskaintzia eta kanpo lana dala.

Aldatuko zenituzken beste hiru?

Ez neuke ezer aldatuko.

Zure lanerako ezinbestekuak dien ezaugarriak.

Jendearekin harremanak eitteko gaitasuna.

Lanbidia aldatzekotan, zer?

Kotxe mekanikoa.

Jarritako multa haundixena zeaittik izen zan?

Badoan. Juan XXIII plazan, garaje aurrian aparkatziagaittik. 15 mila pezetako multia.

Zuri jarri dotsue inoiz multaik?

Inoiz ez. Ez hemen ezta kanpuan ere.

Asteko egunik onena eta gorrotagarriena? Zeaittik?

Onena osteguna, jende gutxiau dabilelako herrixan eta txarrena eguakitz edo zapatu goiza, jende asko dabilelako kalia.

Egunkaririk irakurtzen dozu?

Bai, Diarixua eta Gara.

Zer da irakurtzen dozun lehenengo gauzia?

Hasieratik hasten naiz bukaeraraino.

Kirolik egiten duzu?

Futbitua.

Janari bat?

Legatza plantxan.

Bidaiazia gustatzen jatzu? Nora egin dozu azken bidaia?

Bai, gustatzen jat. Egin doten azken bidaia Cordobara izan da.

Guapoago uniforme ala kaleko erropaz?

Kaleko erropiak.

Txapela buruan eta ibili munduan?

Txapela guk egunero erabiltzen dogu, ia kendu barik, baina esaldixoi ez dot ezagutzen.

Esan dizuten gauzarik politxena?

Ez dakit. Igual "Botica de la Abuela" saioko Txumariren antza daukatela.

Eta itsusiena?

Jaietan edozein gauza, "aguacil cabrón" eta beste makina bat gauza.

Zein da ikusi dozun azken pelikulia?

Atzo gabian telebisiñuan. Baina zinian, "La amenaza fantasma" umiak batera.

Erromantikua za?

Batere ez.

Porrrak eta esposek zenbat erabilera dauke edo izan leizkie?

Norbait eusteko edota berotzeko.

Dauzkazun hiru birtute.

Zabala naizela, etxeko lanak ez nabela atzera botatzen eta nahiko ausarta naizela.

Eta hiru defektu.

Batzuetan gehiegi berba eitten dotela, burugogorra naizela eta besteik ez dakit.


GRUPO ZURICH
ASEGURUA


GABILONDO
AGENTZIA
INMOBILIARIOA

Guurtzne Elkoru Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

EDEL
TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan
aukerarik haundiena
eskaintzen dizugu*

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

URRATS
TABERNA

**KOKTEL BEREZIAK
GAUETAN**

Ibargarai 4
943 76 52 92

ileapaindegia
eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

**Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoia, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Labegaraietako eskolako neskek

Duela 70 bat urte Labegaraietako eskolan ari ziren neskatilen argazkia dakarkizuegu aste honetan. Erretratuan agertzen direnek 6-9 urte bitartean izango zituzten orduan eta Julia Ramos andereñoarekin ikasten zuten auzoko eskolan. Orduko matematika edo hizkuntzako lezioak gogoan izango dituzte oraindik, dudarik ez. Mutilak eta neskek gela berean egon arren, erretratu honetan neskatilak bakarrik ageri zaizkigu. Ikasle taldeak San Kristobalگو ermitara egindako irteeraren batean atera zuten argazkia Txomin Amasorrainek. Hara hor zeintzuk diren bertan agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Encarna (irakaslearen laguntzailea), Margarita Beitia, Crsitina Beitia, ezezaguna, Angelita Arrieta, Miren Azkargorta, Timuti Elorza,

Luisa Iriarte, Teresa Luarizaristi eta Doña Julia Ramos irakaslea.

Hirugarren ilaran: Karmen Narbaiza, Dolores Luarizaristi, Mari Tere Kortabarria, Angelita Lazkano, Klarita Agirre, Luisita Azkarate eta Blanquita Jauregi.

Bigarren ilaran: Eulogia Palomero, ezezaguna, Maria Goikoetxea, Juli Beistegi, Felisa Kortabarria, Kontxita Castañares, Kristina Arrieta, Felisa Mujika, Maria Luisa Pardina eta Karmen Goikoetxea.

Aurrean: Anita Zezeaga, Karmen Etxeberria, Maritxu Iriarte, Manolita Palomero, Aurea Aizkorrialde, Maria Beitia, Casimira Luarizaristi, Elisa Alberdi eta ezezaguna.

Argazkia: Elena Luarizaristi

PILI GISASOLA

Santiveri 

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83



umelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Udazken-herriko MODA DESFILEA

Domekan, urriak 17, 18:00etan Jam aretoan



Partehartzaileak:

SUBIJAI
Gazteentzako moda

IKUSBI
JANTZIAK



AGIRRE
Jantzidenda



CRISTINA
JANTZIDENDA

Nerea
LENTZERIA



IGARZA
MERTZERIA

P. MANSO
Optika



JAUJA KIROLAK

Dochy Novias
GASTEIZ

Sarrera, 1.000 PTA. Ariznoa, Ganbara eta Deportibo tabernetan edo
takilan desfilea hasi baino ordubete lehenago.

Jasotako dirua, Raul Luqueren alde.

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra



Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakina Diseinua, kalitate/prezio erlatibo bikaina eta saldu osteko zerbitzu ezin hobea eskaintzen dizugu. ETA, GAINERA, ZERAMIKA ESKAMIN ZABAL ETA BEREZIA DUGU ZURETIA



6 URTEKO GARANTIA

FAGOR 
Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeko
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.